20 26


METAK

Meta bat estalkirik gabeko lastategi bat da: erdialdean makila luze bat ipintzen da (ziri), eta horren inguruan animaliak jateko belarra edo haien oherako garoa estutzen da. Makila hori oinarrian eutsita dago luzera motzeko hiruzpalau makilengatik eta batzuetan, luzera handiko beste batekin eusten da, sarriago agertzen den haizearekiko aurkako norabidean. Belarra metatu (eta zapaldu) baino lehen, lurrean hainbat egur ipintzen dira bertatik isolatzeko. Bere altuera 2 eta 3 metro artekoa zen, eta 200 eta 500 kg belar inguru biltzen ziren.

Gaur egun, metak Euskal Herriko kantauriar pasaiatik ia guztiz desagertu dira. Nekazaritza jarduera nabarmen jaitsi ez ezik, belarraren elikadura ezaugarriak hobeto kontserbatzen direlako plastikozko bilgarrietan. Hala ere, paisaia tradizionala nabarmen kaltetu da.



Meta baten eraiketa Igeldo landa auzoan, Donostian, 1990eko hamarkadan.



Ortoargazkia 1954. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Gipuzkoako Foru Aldundia. UTM 30N ETRS89 // X: 589708 m // Y: 4795266 m. Errenteriako sektore txiki batean ikus daitezkeen metak adierazi dira. Gaur egun, bertan, komunikazio azpiegituraz eta hiri erakinez josita daude.

geo euskadi